# PLANGINTZA: NOR?, NOIZ?, NON? ETA NOLA?

Orain zure ideia ekintza bihur dezakezu, Ekintza Plana erabiliz. Hemen zure ideia guztiak antolatu eta irudika ditzakezu, zure ekintzak arrakasta izan dezan.

| EKINTZA-PLANA | |
|---|---|
| **EKINTZA-ARLOA** *(Akonpainamendua eta laguntza, kontzientziazioa edo defentsa)* | |
| **GURE EKINTZA** | |
| **Ekintzaren bidez sortu nahi dugun ALDAKETA** | |

| EGIN BEHAR DUGUNA | PLANEATZEN DUGUNA | EMAITZAK: ZER GERTATU DA EGIAZ? |
|---|---|---|
| **HELBURUAK:**<br>• *Zer helburu lortu nahi ditugu? Zer izango da desberdina gure ekintzaren ondoren?*<br>• *Zer aldaketa lortu izango dugu? Deskribatu helburua modu zehatzean, lortu duzun eta zenbateraino lortu duzun egiaztatzeko?* | | |
| **HELBURU PERTSONALAK:**<br>• *Zer helburu lortu nahi ditugu geure buruarentzat?*<br>• *Zer ikasi eta praktikatu nahi dugu?*<br>• *Zer aldaketa espero dugu gugan?* | | |
| **EKINTZAREN DESKRIPZIOA:**<br>• *Zer egin nahi dugu?*<br>• *Deskribatu zure helburuak lortzeko behar diren ekintza eta jarduera espezifikoak.* | | |
| **EGUTEGIA:**<br>• *Noiz hasiko da ekintza?*<br>• *Zer-noiz egin beharko litzateke? Noiz osatuko da dena??* | | |

| EGIN BEHAR DUGUNA | PLANEATZEN DUGUNA | EMAITZAK: ZER GERTATU DA EGIAZ? |
|---|---|---|
| **ERANTZUKIZUNAK:**<br>• *Nor dira jarduera bakoitzaren arduradunak? Bada pertsona bat arduradun orokorra dena?*<br>• *Guztiek dute beren trebetasun eta interesekin bat datorren eginkizuna?* | | |
| **BALIABIDEAK:**<br>• *Zer baliabide behar ditugu jarduerak gauzatzeko eta helburua lortzeko?*<br>• *Zerrendatu zehatz-mehatz behar dituzun baliabideak (teknologia, espazio fisikoak, material gehigarriak, dirua).* | | |
| **LAGUNTZA:**<br>• *Zer bazkide, babesle eta bestelako pertsonak lagun diezagukete?* | | |

| EGIN BEHAR DUGUNA | PLANEATZEN DUGUNA | EMAITZAK: ZER GERTATU DA EGIAZ? |
|---|---|---|
| **PUBLIZITATEA:**<br>• *Nola egin daiteke gure ekintzaren publizitatea eta nola ezagutarazi aldez aurretik?*<br>• *Zer tresna (sare sozialak, kartelak, liburuxkak, etab.) behar ditugu ekintzari ikusgarritasuna emateko?* | | |
| **EMAITZAK KOMUNIKATZEA:**<br>• *Nola jakinaraziko dizkiegu emaitzak besteei?*<br>• *Izendatu ezazu norbait ekintzan zehar argazkiak ateratzeko; beste aukera bat da ekintza sare sozialetan zuzenean transmititzea edo kazetari bati horren berri emateko eskatzea..* | | |

Ekintza-plana bete ondoren, ziurtatu ezazu planifikatu duzun ekintza zure Ikasle Enbaxadoreen taldeko kide guztientzat interesgarria dela eta erronka ezartzen diela. Gogoratu, halaber, zure ekintzak errealista izan behar duela eta garaiz egiteko behar dituzun baliabideak badituzula. Agian, gauza batzuk doitu beharko dituzu pieza guztiak elkarren artean ongi egokitzeko.